

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

368/2025 Foru Agindua, ekainaren 27ekoa. Nerea Aretxabala Rebolleda karrerako udal funtzionarioaren aldi baterako izendapena egitea, 2025ean Artziniegako Udaleko idazkari lanpostuaren eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunagatik edo absentsiagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako arrazoeingatik edo beste arrazoi batzuegatik ez dagoenean, hilabetetik beherako aldietarako

Artziniegako Udalak 2025eko ekainaren 25ean jakinarazi du aldi baterako izendapen baten beharra duela idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra 2025ean aldi batez ez dagoenean ordezteko, betiere hilabetetik beherako aldietarako.

Hori dela-eta, proposatu du Nerea Aretxabala Rebolleda Artziniegako Udaleko karrerako funtzionarioaren aldi baterako izendapena egitea.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan adierazten da ezen lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunean badago hilabete baino epe laburragoan edo oporregatik, norberaren gauzegatik edo beste arrazoi batzuegatik kanpoan badago, toki erakundeko bertako funtzionario bat aldi baterako izendatu ahal izango dela hilabete baino gutxiagoko aldietarako, korporazioko lehendakariak proposaturik, autonomia erkidegoko araudiaren arabera.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Nerea Aretxabala Rebolleda Artziniegako Udaleko karrerako funtzionarioaren aldi baterako izendapena egitea, 2025ean Artziniegako Udaleko idazkari lanpostuaren eginkizunak betetzeko, lanpostuaren titularra aldi baterako ezintasunagatik edo absentsiagatik, oporregatik, norberaren gauzetarako arrazoeingatik edo beste arrazoi batzuegatik ez dagoenean, hilabetetik beherako aldietarako.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazi diren aldietarako bakarrik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Artziniegako Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari.

Bosgarrena. Jakinarazten zaizun foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakezu zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 27a

Lurralde Oreakaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Oreakaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA